

**100/2005 FORU DEKRETUA, ekainaren 21ekoa,
Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Arloko Zehapen-
araudia onetsi duena
(BAO, ekainaren 30ekoa)**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra onestean gure zerga-arautegi orokorra erabat berritu eta eguneratu da eta, ondorioz, bere egituran zehapenen inguruko aldaketa garrantzitsua egin da zergen arloko arau-hausteen eta zehapenen tratamenduari dagokienez.

Horrela, zergen arloko zehatzeko ahalaren araupeketan autonomizazioa sortu izana azpimarratu behar da; gai honek Titulu bat merezi du. Izan ere, zergen arloko zehapenaren eta zerga-zorraren kontzeptuak bereizi egin dira, aurreko araupeketan jaso bezala zerga-zorra zehapena izateko kategorizazioa gaindituz.

Gainera, arau-hausteen artean arinak eta larriak bereizteko moduko ezberdintasunak ematen ez direnez, aurreko legerian araupetzen zen bezala, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak berriak ez die zergen arloko arau-hausteei inolako sailkapenik ematen, hau da, arau-hauste bakoitza tipifikatu egiten du eta dagokien zehapena ezartzen du.

Neurri horren bidez sistema erraztu egiten da. Are gehiago, errazteko bide horren ildotik, zehapenak mailakatzeko irizpideak murriztu egin dira; hiru egongo dira: zergen arloko arauak behin eta berriro haustea, datuak ezkutatzea eta bitarteko pertsona baten bidez edo iruzurrez jokatzea.

Prozedurari dagokionez, zergak aplikatzeko prozedura guztietan zehapen arloan aplikagarriak diren arauak garatu dira. Arau guztiak foru dekretu honen bidez onesten den araudian jasotzen dira eta, horrela, gaur arteko prozedurazko arauen zatiketa hobetzen da.

Bestalde, eta Herri Ogasunaren aurka delituren bat egin delako zantzua duten espedienteetarako prozedura egokia ezarri beharra garrantzitsua denez, araudi mailan lehenbiziko aldiz, zergak aplikatu behar dituzten organoek jarraitu beharreko prozedura arautu da.

Gainerakoan, eta aurreko araudiak bezalaxe, foru dekretu honen bidez onesten den araudiak zehazki zergen arloko zehapenak dohain barkatzeko izapideak ere arautzen ditu.

Hori dela bidez, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2005eko ekainaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Arloko Zehapen-araudiaren onespena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudia onetsi da, eta foru dekretu honetako eranskin gisa ematen da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bakarra. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiaren aldaketa.

Bat. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiko 37. artikuluko 10 eta 11. zenbakiak aldatu dira eta honela geratu dira:

«10. Zehapen-prozeduren izapidetza, bere eskumenen eremuan zergen arloko arau-hausteak egin direla hautematen den kasuetan, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudian ezarritakoarekin bat etorriz.»

11. Zehapenak barkatzeko espedienteen izapidetza, aurreko puntuan xedatutakoarekin bat etorriz izapidetu diren zehapen-prozedurei dagozkienak.»

Bi. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiko 38. artikuluko 9 eta 10. zenbakiak aldatu dira eta honela geratu dira:

«9. Informazioa eskuratzeko jardueren (orokor nahiz selektiboan) plangintza eta burutzapena, zerga-egitateak egiaztatu eta ikertzeko prestakuntza-lanen burutzapena eta zergen arloan garrantzia duten gertaera eta inguruabarren zuzeneko egiazta-pena.»

10. Zehapen-prozeduren izapidetza, bere eskumenen eremuan zergen arloko arau-hausteak egin direla hautematen den kasuetan, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudian ezarritakoarekin bat etorriz.»

Hiru. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiko 39. artikuluko 11. zenbakia aldatu da eta honela geratu da:

«11. Zehapen-prozeduren izapidetza, bere eskumenen eremuan zergen arloko arau-hausteak egin direla hautematen den kasuetan, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudian ezarritakoarekin bat etorriz.»

Lau. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiko 41. artikuluko 10. zenbakia aldatu da eta honela geratu da:

«10. Herri Ogasunaren aurka delituren bat egin delako zantzua duten espedienteen izapidetza, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudiko IV. tituluaren ezarritakoarekin bat etorriz.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arau-indargabeketa.

1. Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geldituko dira bertan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beherako mailako xedapen guztiak.
2. Bereziki, hurrengo xedapenak geldituko dira indargabetuta:
 - a) Martxoaren 2ko 18/1999 Foru Dekretua, zergen arloko zehapen-araudia ezarri duena.
 - b) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 11ko 48/2004 Ebazpena, zehapen gisa isun finkoa ezartzeko eskumenak eskuordetzen dituena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Araudiaren gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan eta beraren bidez onetsi den araudian xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren arau guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2005eko ekainaren 21ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,.

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ.

Ahaldun Nagusia,.

JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN.

ERANSKINA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEN ARLOKO ZEHAPEN ARAUDIA

ATARIKO TITULUA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Araudi honek osatu eta garatu egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako araupeketeta, zergen arloko arau-hausteengatik zehapenak jartzeko ahalaren eta eginkizunen egikaritzari dagokionez.

Halaber, araudi honetan xedatutakoa zergak arautzen dituzten foru arauetan bildutako zergen arloko zehapenak ezartzeko prozedurei aplikatuko zaie, erregela zehatzik ez dagoenean.

2. Foru Aldundiak Estatu osoan baliarazi ahal izango ditu zergen arloko zehapenak ezartzeko eskumenak, betiere Ekonomi Itunean xedatutakoarekin bat etorritik.

2. artikulua. Definizioak.

1. Araudi honetan xedatutakoari dagokionez, honako definizioak hartuko dira aintzat:
 - a) Instruktoea: Zerga Administrazioiko funtzionarioa da eta prozedura izapidetzeaz arduratzen da harik eta dagokion ebazpen proposamena adierazi arte.
 - b) Prozedura hasteko organo eskuduna: prozedurak hasteko eta horien izapidetzea koordinatu, bultzatu eta kontrolatzeko erabakia hartu behar du. Gainera, hala denean, instruktorea izendatu eta prozedurak izapidetzean gertatu ahal izan diren gorabeherak ebartziko ditu.

Zergak kudeatzeko prozeduretan, prozedura hasteko organo eskudunak bera instruitzeko ardura ere hartu ahal izango du.

- c) Prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak emateko organo eskuduna: prozedura hasteko organo eskudunak hierarkian gorago duena da.
2. Bizkaiko Foru Aldundian, kasuaren arabera, honako hauetako bat hartuko da prozedurari hasiera emateko organo eskuduntzat:
 - a) Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzari dagozkion zehapenak ezartzeko eskumenetan, kasuan-kasuan dagozkion zerbitziburua
 - b) Ikuskapenerako Zuzendariordetzari dagozkion zehapenak ezartzeko eskumenetan, kasuan-kasuan dagozkion zerbitziburua.

Edonola ere, Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduaren bosgarren xedapen gehigarrian aipatutako kasuetan, Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzuko burua.

 - c) Zerga-bilketarako Zuzendariordetzari dagozkion zehapenak ezartzeko eskumenetan, kasuan-kasuan dagozkion zerbitziburua, edo Zerga-bilketarako zuzendariordea baldin eta Ikerketa eta Kobrantzarako Talde Operatiboak eginiko prozedurak badira.
 3. Bizkaiko Foru Aldundian, kasuaren arabera, honako hauetako bat hartuko da prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzak emateko organo eskuduntzat:
 - a) Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzari dagozkion zehapenak ezartzeko eskumenetan, kasuan-kasuan dagozkion zerbitziburua.
 - b) Ikuskapenerako Zuzendariordetzari dagozkion zehapenak ezartzeko esku- menetan, Ikuskapenerako zuzendariordea.
 - c) Zerga-bilketarako Zuzendariordetzari dagozkion zehapenak ezartzeko esku- menetan, Zerga-bilketarako zuzendariordea, salbu eta Ikerketa eta Kobrantzarako Talde Operatiboari dagozkion prozeduretan, kasu horretan Ikuskapenerako zuzendariordea izango baita organo eskuduna.
 4. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, diruzkoak ez diren zehapenak jartzeko administrazio egintzak emango dituen organo eskuduna Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 218. artikuluko 5. idatz-zatian ezarriko da.

3. artikulua. Norberaren egoera borondatez erregularizatzearen ondoreak zehapenei dagokienez.

1. Ez zaie zehapenik jarriko zerga-egoera erregularizatzeko edo zuzentzeko asmoz Zerga Administrazioak errekerimendua egin baino lehen aitopenak edo autolikidazioak aurkezten dituzten zergapekoei, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 184. artikuluko 3 eta 4 idatz-zatietan xedatutakoarekin bat etorriz. Dena den, aitopen edo autolikidazio berriak berandu edo behar ez bezala aurkeztearen ondorioz egin ahal izan diren arau-hausteengatik bidezko zehapenak jarriko dira.
2. Zergapekoak Zerga Administrazioaren errekerimenduaren jakinarazpena jaso ondoren sarrerarik egiten badu, sarrera horiek likidazioaren konturako sarreratzat joko dira (horrelakorik eginez gero) eta ez dute likidazioaren ondoriozko zerga zorraren eta jakinarazpen hori baino lehen egindako sarreraren arteko diferentziaren ziozko zehapen egokien ezarpenik egitea eragotziko.

4. artikulua. Zerga-zehapenak azkentzearen ondoreak «mortis causa» oinordetzetan.

Arau-hausle fisikoa hiltzen bada, ezarri zaizkion zehapenen ziozko zerga-bilketarako prozedura amaitu egingo da. Heriotza egiaztatzen denean zehapen horiek azkendutzat joko dira; heriotza egunetik edo haren heriotzaren adierazpena irmo bihurtzen den egunetik izango ditu ondoreak.

I. TITULUA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

I. KAPITULUA

ZERGEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK

5. artikulua. Zergen arloko arau-hausteen kalifikazioa.

Zergak kudeatzeko prozedura berean (balioak egiaztatze prozeduran izan ezik) edo ikuskapen prozedura berean zergaldi edo likidazioaldi bat baino gehiago badaude, bidezko zehapenak jartze aldera, prozeduraren zerga eta aldi bakoitzeko arau-hauste bat egin dela ulertuko da, betiere foru arauetan tipifikatzen den arau-hausteen gaineko kasu bakoitzari dagokionez.

Zergaldirik edo likidazioaldirik gabeko zergei dagozkien arau-hausteak egin badira edo aldizka aitortu ez diren egitate edo eragiketak badaude, zergari lotutako egitateen edo eragiketen ondoriozko zerga-betebehar bakoitzeko arau-hauste bat egin dela ulertuko da.

Betebehar formalak ez betetzearen ondoriozko arau-haustea egin bada, ez-betetze bakoitzeko arau-hauste bat egin dela ulertuko da.

II. KAPITULUA

ZEHAPENAK MAILAKATZEKO IRIZPIDEAK

6. artikulua. Zergen arloko arauak behin eta berriro haustea.

1. Zehapenak mailakatzean, kontuan izango da tributu-arloko arau-haustea errepikatu den, betiere arau-hausleari tributu-arloan izaera bera duen beste arau-hauste bategatik jarri zaion zehapena administrazio-bidean irmo bihurtu bada arau-hauste berria egin aurreko lau urteetan.

Hala ere, ez da joko tributu-arloko arau-haustea errepikatu dela baldin eta aurretik ezarritako zehapenak zerga-kontzeptu berari eta zergaldi berari badagozkie eta behin-behineko likidazio bat eragin duen zergen aplikazioaren ondorioz hasitako prozedura batean ezarri badira.

2. Inguruabar hori ematen bada Bizkaiko lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196tik 198rainoko artikuluetan aipatzen diren arau-hausteen kasuan, zehapen gisa jarriko den isun proportzionalaren ehunekoa 10 puntu gehituko da aurretik jarrita duen zehapen bakoitzeko. Dena den, zehapenaren ehunekoa gehienez 30 puntu gehitu ahal izango da.
3. Inguruabar hori ematen bada Bizkaiko lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 204. eta 209. artikuluetan aipatzen diren arau-hausteei dagozkien zehapenen (isun proportzional bidez emandakoen) kasuan, zehapen gisa jarriko den isun proportzionalaren ehunekoa %100ean gehituko da aurretik jarrita duen zehapen bakoitzeko. Dena den, aplikatu beharreko zehapenaren ehunekoak ezin izango du gainditu aipatu manuetan ezarritako gehienekoa.
4. Inguruabar hori ematen bada isun finko bidezko zehapenen kasuan, aplikatu beharreko zehapena %100ean gehituko da aurretik jarrita duen zehapen bakoitzeko. Dena den, zehapenaren zenbatekoak ezin izango du gainditu aipatu manuetan ezarritako gehienekoa, hala denean, ezta berorren zenbatekoaren %300 ere.
5. Zehapenerako zenbateko bakarra edo ehuneko finkoa ezartzen denean, ez da aplikatuko artikulua honetan jasotzen den mailakatze irizpidea.

7. artikulua. Datuak ezkutatzea.

1. Zehapenak mailakatze aldera, Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola ulertuko da aitortpena aurkezten ez denean, aitortpenean existitzen ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak agertzen direnean, edo zerga-zorra zehazteko kontuan hartu behar diren eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo bestelako daturen bat ematen ez bada edo horien zati bat bakarrik ematen bada.

Inguruabar hau gertatu dela ulertuko da Zerga Administrazioak hirugarrenen aitortpenen bidez, informazioa eskatzeko errekerimenduen bidez edo arau-hauslearen kontabilitatea, liburu edo erregistroak eta gainerako dokumentazioa aztertu ondoren eragiketak edo ezkutatu diren datuak zein diren jakin arren.

Aipatu inguruabarra gertatu dela pentsatuko da datuak ezkutatzearen ondorioz ordaindu beharreko zerga-zorra gutxitu egiten bada edo itzulketa gehitu egiten bada.

Baldin eta arau-hausleak bere aitortpenean zerga-zorra zehazteko beharrezko datuak agerrarazi baditu eta zerga-zorraren gutxitzea zergen arloko arautegia gaizki aplikatzearen ondorioz gertatu bada, hori ez da datu-ekutatetzat joko.

2. Halaber, ez da ulertuko datuak ezkutatu egin direla araudi honetako 8. artikuluko 2. idatzatiko c) letran jasotakoa aplikatu behar denean eta aurkeztutako aitortpena funtsezko akatsik ez duen kontabilitatearen isla zehatza denean.
3. Isun proportzionala jartzea dakarren arau-haustea egin eta inguruabar hau gertatzen denean, zehapenaren ehunekoa 15 eta 50 puntu bitartean gehituko da.

Ezkutatutako datuen ondorioz zerga-zorra zenbat gutxitu den, horren arabera zehaztuko da gehikuntza hori, irizpide hauek kontuan hartuz:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. eta 198. artikuluetan tipifikatzen diren arau-hausteen kasuan, datu-ekutatzeak ordaindu gabe utzitako zenbatekoan edo bidegabe itzultitako zenbatekoan izan duen intzidentzia hartuko da kontuan, betiere hurrengo taularen arabera:

Ordaindu gabe utzitako edo bidegabe itzultitako zenbatekoan izan den intzidentzia	Zehapenaren gehikuntza (puntuak ehunekotan)
%30 baino gutxiago	%15
%30etik %50 baino gutxiagora	%20
%50etik %65 baino gutxiagora	%30
%65etik %80 baino gutxiagora	%40
%80tik aurrera	%50

- b) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 197. artikuluan tipifikatzen diren arau-hausteen kasuan, aurreko letran azaltzen diren erregelak aplikatuko dira baina betiere zergaren likidazio egokiaren eta lehenengoari buruz aitortutako datuen bidez egindakoaren arteko aldeari dagokion ehunekoaren arabera.
 - c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. eta 197. artikuluetan jasotzen den aitortpena edo autolikidazioa aurkezten ez bada, zehapenaren oinarriaren arabera ezkutatzearen ondoriozko zorraren intzidentzia %100ekoa izango da.
4. Mailakatzeko irizpide hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196tik 198rainoko artikuluetan tipifikatzen diren arau-hausteei aplikatuko zaie.

8. artikulua. Iruzzurrez jokatzea.

1. Zehapenak mailakatze aldera, iruzurrez jokatu da kontabilitatean edo liburu eta erregistroetan funtsezko akatsak daudenean eta faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri aizunak edo aizunduak izatean.

2. Kontabilitatean funtsezko akatsak daudela uste izango da hurrengo kasuetan:

a) Zerga-xedapenetan jasotako kontabilitatea edo liburuak nahiz erregistroak arteztu beharra ez betetzea.

Hori betetzen ez denean, zehapen gisa jarriko den isun proportzionalaren ehunekoa 75 puntutan gehituko da.

b) Jarduera eta ekonomi ekitaldi berari buruz kontabilitate bat baino gehiago artezte, enpresaren benetako egoera zein den jakitea uzten ez dutenak.

Hori betetzen ez denean, zehapen gisa jarriko den isun proportzionalaren ehunekoa 100 puntutan gehituko da.

c) Kontabilitate-liburuak edo zergen arloko arauen bidez ezarritako liburuak edo erregistroak oker artezte, esaterako, idazpen edo erregistro okerrak egitea edo batzuk ez egitea edo konturen bat benetan duen esanahiaren orde bere izaerarekin bat ez datorren beste batekin erabiltzea.

Inguruabar hori ematen denean, agerrarazi gabeko, oker agerrarazitako edo benetan duen esanahiaren orde bere izaerarekin bat ez datorren beste batekin erabilitako kontuetan agerrarazitako karguen edo abonuen zenbatekoa dagokion liburuan edo erregistroan egindako kargu edo abonu guztien %15 izango da, gutxi gorabehera, arau-haustea egin den zergaldian.

Hori gertatzen denean, zehapena hurrengo irizpideen arabera gehituko da:

Agerrarazi gabeko, oker agerrarazitako edo benetan duen esanahiaren orde bere izaerarekin bat ez datorren beste batekin erabilitako kontuetan agerrarazitako karguen edo abonuen zenbatekoak, gutxi gorabehera, guztirakoarekiko duen ehunekoa	Zehapenaren gehikuntza (puntuak ehunekotan)
%15etik %25era	25
%25 baino gehiagotik %50era	50
%50etik gora	75

Letra honetan jasotzen diren inguruabarrak gertatzen direla uste izango da arau-haustea gertatzeko beharrezko tresna direnean.

3. Faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri aizunak edo aizunduak erabili direla pentsatuko da haiek berez egin ez den eragiketarik agerrarazteko (oso-osoa nahiz zati batean) erabili badira eta arau-haustea egiteko tresna izan badira.

Aitzitik ez da horrelakorik pentsatuko agiri edo euskarri aizunek edo aizunduek antzemandako zerga-zorreen duten eragina %15 baino txikiagoa denean.

Hori gertatzen denean, zehapena hurrengo irizpideen arabera gehituko da:

Agiri edo euskarri aizunek edo aizunduek egiaztapenaren ondorioz antzemandako zerga-zorreen duten intzidentziaren ehunekoa	Zehapenaren gehikuntza (puntuak ehunekotan)
%15etik %25era	25
%25 baino gehiagotik %50era	40
%50etik gora	55

9. artikulua. Bitarteko pertsona edo erakunde baten bidez jardutea.

1. Zehapenak mailakatze aldera, bitartekari legez beste pertsona edo erakunde bat erabili dela ulertuko da arau-hausleak, bere nortasuna ezkutatzeko asmoarekin, beste baten izenean agerrarazi baditu (haren baimenarekin zein baimenik gabe) zehapena eragin duen arau-haustearen oinarrian dagoen zerga-betebeharra sortu duten ondasunen edo eskubideen titulartasuna, errentak edo ondare irabaziak edo zerga-betebeharra dakarten eragiketak.

Hori gertatzen denean, zehapen gisa jarriko den isun proportzionalaren ehunekoa 50 eta 80 puntu bitartean gehituko da.

2. Zehapena hurrengo irizpideen arabera gehitu egingo da:

Bitarteko legez beste pertsona edo erakunde bat erabiltzeak egiaztapenaren ondorioz antzemandako zerga-zorreen duten intzidentziaren ehunekoa	Zehapenaren gehikuntza (puntuak ehunekotan).
%25eraino	50
%25 baino gehiagotik %50era	60
%50 baino gehiagotik %75era	70
%75etik gora	80

10. artikulua. Iruzzurrez edo bitarteko pertsona nahiz erakunde baten bidez jarduteko irizpidea aplikatzeko arauak.

1. Aurreko 8. eta 9. idatz-zatietan bildutako inguruabarrak banan-banan hartuko dira kontuan eta bakoitzaren ondorioz bidezkoa den zehapenaren ehunekoaren gehikuntza bereiz kalkulatuko da.

Horrenbestez, araudi honetako 8. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan jasotako inguruabarrak ezberdinak dira.

2. Mailakatze irizpide hori aplikatuz isun proportzionala dakarren zehapenaren ehunekoa zenbatean gehitzen den kalkulatzeko, aurreko bi artikuluetan aipatutako gehikuntzak batuko dira.

Gehikuntzen baturaren ehunekoa 100 puntu baino gehiago bada, gehikuntzaren ehunekoa kopuru horretakoa izango da gehienez.

3. Mailakatzeko irizpide hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196tik 198rainoko artikuluetan tipifikatzen diren arau-hausteei aplikatuko zaie.

III. KAPITULUA

ARAU-HAUSTE BATZUEN GAINKO ARAU BEREZIAK

11. artikulua. Autolikidazioak, aitortenak edo banakako informazio-errekerimenduen erantzunak oker aurkezteagatik edo banakako informazio-errekerimenduei erantzuteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren euskarriak erabiltzeagatik eginiko tributu-arloko arau-haustea.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 204. artikuluko c) letran xedatutakoaren ondorioetarako, diru-magnitudeei buruzko datuen kasuan erregela hauek aplikatuta ateratzen den zehapena (isun proportzionala) ezarriko da:

Aitortu ez diren edo oker aitortu diren eragiketen zenbatekoak aitortu behar ziren eragiketen gainean osatzen duen ehunekoa	Aplikatu beharreko Zehapena
%10 baino gehiagotik %25era	%0,5
%25 baino gehiagotik %50era	%1
%50 baino gehiagotik %75era	%1,5
%75etik gora	%2

2. Aurreko zenbakian aipatzen den ehunekoa %10 baino txikiagoa denean, 1.000 euroko isun finkoa jarriko da.

Halaber, artikuluko honetako aurreko zenbakian ezartzen denaren ondorioz ateratzen den zenbatekoa gutxienez 1.000 euro izango da, eta, beraz, mota horretako zehapena dela-eta 1.000 euroko isuna ezarriko da.

3. Banakako errekerimenduek edo oro har eskatzen diren aitortenak diru-magnitudeei buruzko datuak eta bestelako datuak dituztenean, artikuluko honetako aurreko zenbaki bietan xedatutakoa aplikatzekoa izango da zehapenaren oinarria zehazteko, Zergei buruzko Foru Arauaren 204. artikuluko c) letran eta 205. artikuluko 4. zenbakiko azken paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako. Horretarako, erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Diru-magnitudeak ez diren datuak oker, zehaztugabe edo faltsuak badira, haiei lotuta dagoen diru-magnitudeari buruzko datuaren zenbateko osoa izango da zehapenaren oinarria, baina pertsona edo erakunde bakarraren diru-kopuruari buruzko datu bat baino gehiago eman bada, zehapen-oinarria zenbateko handiena izango da.
- b) Diru-magnitudeetan eta bestelako magnitudeetan adierazitako datuak oker, zehaztugabe edo faltsuak badira edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu badira, zehapenaren oinarria izango da erantzunean eman edo aitortutako zenbatekoaren eta eskatutako datu zuzenaren edo bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoaren bidez aitortu behar zen datuaren arteko diferentzia (balio absolutuetan emana).

Pertsona edo entitate bakar bat dela-eta diru-magnitudeetan adierazitako datuak oker, zehaztugabe edo faltsuak badira edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu badira eta bi datu edo gehiago badira, guztien diferentzien batura izango da zehapenaren oinarria.

- c) Pertsona edo entitate bakar bat dela-eta diru-magnitudeetan adierazitako datuak osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak badira edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu badira eta datu horiek elkarren artean lotuta badaude ehuneko baten edo karga-tasa baten aplikazioagatik, zehaztapen hauen arabera zehaztuko da datu multzo horretarako zehapen-oinarria:

1. Datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsua edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztutakoa baldin bada ehunekoak edo karga-tasa aplikatzen zaion zenbatekoa, zehapenaren oinarria izango da erantzunean eman edo aitortutako zenbatekoaren eta eskatutako datu zuzenaren edo bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoaren bidez aitortu behar zen datuaren arteko diferentzia (balio absolutuetan emana).

Magnitudeetan adierazitako datuak osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak badira edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu badira eta bi edo gehiago badira, guztien diferentzien batura izango da zehapenaren oinarria.

2. Datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsua edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztutakoa baldin bada ehunekoak edo karga-tasa aplikatzen zaion zenbatekoa, zehapenaren oinarria izango da ehunekoak edo zerga-tasa aplikatzearen ondorioz aitortutako zenbatekoaren eta ehuneko edo zerga-tasa zuzena aplikatzearen ondoriozko zenbatekoaren edo bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoaren bidez aitortu behar zen datuaren arteko diferentzia (balio absolutuetan emana).

Ehunekoak edo karga-tasak osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak badira edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu badira eta bi edo gehiago badira, guztien diferentzien batura izango da zehapenaren oinarria.

3. Datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak edo elektronikoak, informatikoak eta telematikoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztutakoak baldin badira ehunekoak edo zerga-tasa zein ehunekoak edo karga-tasa aplikatzen zaion zenbatekoa, zehapenaren oinarria izango da erantzunean eman edo aitortutako zenbatekoaren eta erantzun edo aitortu behar ziren zenbatekoaren edo bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoaren bidez aitortu behar zirenen arteko diferentzien batura (balio absolutuetan emana).
4. Aurreko 3. zenbakian ezartzen diren kasuetan, zenbaki horrekin bat etorritik zehaztu den zehapen-oinarri osoaren eta eskatu diren edo aitortu behar izan diren diru- kopuruei buruzko datu guztien zenbateko zuzenen edo bitarte elektroniko, informatiko eta telematikoaren bidez aurkeztu behar diren datuen arteko erlazioaren arabera xedatuko da aplikatu beharreko isun proportzionala; ehuneko edo karga-tasa bat aplikatzeagatik elkarren artean lotuta dauden datuei dagokienez, berriz, ehunekoak edo karga-tasa aplikatzen zaie datuen zenbateko zuzenen edo bitarte elektroniko, informatiko eta telematikoaren bidez aurkeztu behar diren datuen arabera.
5. Borondatez eta aurretiazko errekerimendurik egin gabe aitortuak edo autolikidazioak aurkeztu badira aurretik oker aurkeztutako beste batzuk zuzentzeko, eta aitortu edo autolikidazio berriak jasotzen diren datu batzuk osatugabeak, zehaztugabeak edo faltsuak badira, oker aurkeztutako datu berriei dagokien zehapena baino ez da ezarriko.
6. Ez da erantzukizunik izango errekerimendu bati oker erantzuteagatik edo elektroniko, informatiko edo telematikoak ez diren euskarriak erabiltzeagatik baldin eta borondatez, eta errekerimendu berriak egin gabe, aurretik aurkeztutakoa zuzentzeko erantzun berri bat aurkeztu bada.

Aurreko paragrafoan azaltzen den kasuan, errekerimendurako erantzun berriak datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak ematen badira edo elektroniko, informatiko edo telematikoak ez diren euskarriak erabiltzen badira, erantzun berriak oker aitortutako datuei edo elektroniko, informatiko edo telematikoak ez diren euskarrietan aurkeztutako datuei dagokien zehapena baino ez da ezarriko.

12. artikulua. Kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzeagatiko zergen arloko arau-haustea.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 2. zenbakiko b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera subjektu arau-hauslearen negozio-zifraren gaineko isun proportzionala ezartzen denean, erregela hauek izango dira aplikatzekoak:
 - a) Kontabilitatearen kasuan, kontuan hartuko da arau-haustea gertatu den ekitaldi ekonomikoan subjektu arau-hausleak duen negozio-zifra.
 - b) Zergen arloko arauak eskatutako liburu edo erregistroen kasuan, kontuan hartuko da arau-haustea gertatu den zergaldian nahiz likidazioaldian arau-hausleak duen negozio-zifra.
 - c) Programa eta fitxategi informatikoak eta kodetze-sistemak suntsitu, ezabatu edo manipulatu badira eta egiaztatzen bada egoera horri dagokion zergaldia oraindik ez dela amaitu egiaztapena egiten ari den unean, aurreko ekitaldikoa izango da subjektu arau-hauslearen negozio-zifra.
2. Zerga berezien arloko arauak eskatutako liburu edo erregistroen kasuan, hurrengo erregelak aplikatuko dira:
 - a) Arau-haustea egin bada eragiketak zehaztasunik gabe aipatzen edo isilean gordetzen direlako edo konturen bat benetan duen esanahiaren ordezkari bere izaerarekin bat ez datorren beste batekin erabiltzen delako, eta idaztoharretan ez bada diru-kopuruei buruzko daturik eman, zehapena jarri behar denean liburuan zein erregistroan idatzi ez diren edo oker idatzi diren eragiketekin lotutako produktu fabrikatuen balioa hartuko da kontuan.
 - b) Arau-haustea egin bada liburuak edo erregistroak erabili edo zaindu ez direlako, soilik hartuko da negozio kopurutzat liburu edo erregistro horiek ez erabili edo zaintzearekin lotutako produktuei dagokiena.
3. Alabaina, kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arau-hauste horrek ez du inolako administrazio-erantzukizunik izango baldin eta arau-hausle berari . Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196tik 202rainoko artikuluetan ezartzen den arau-hausteetako batengatik zehapena jarri behar bazaio kontabilitate eta erregistro betebeharrak ez betetzeari dagozkion eragiketen gaineko aitorpena edo autolikidazioa oker egin delako.

13. artikulua. Fakturazio edo dokumentazio betebeharrak ez betetzeagatiko zergen arloko arau-haustea.

1. Ez-betetzea eragin duen eragiketaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo salmentak kargatuko dituen zerga orokorraren ondoretarako zehaztutako zerga-oinarria izango da.

Faktura, frogagiri edo ordezkariaren bat zuzentzean fakturazio betebeharrak betetzen ez badira, jarri beharreko isun proportzionala Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo fakturan, frogagirian nahiz ordezkariaren dokumentatutako eragiketa kargatuko duen salmentei buruzko zerga orokorraren zerga-oinarriaren zenbatekoari aplikatuko zaio.

2. Fakturak, frogagiriak edo agiriak gordetzeko betebeharra ez betetzearen ondoriozko arau-hauste honek ez du inolako erantzukizunik izango baldin eta arau-hausle berari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196tik 202rainoko artikuluetan ezartzen diren arau-hausteengatik zehapena jarri behar bazaio ez-betetze horrek ukitzen dituen eragiketei dagokienez.

14. artikulua. Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzeagatiko, oztopatzeagatiko, aitzakiak jartzeagatiko edo ezetza emateagatiko zergen arloko arau-haustea.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 209. artikuluko 4. idatz-zatiko c) letran xedatutakoari dagokionez, arau-haustea egin zen urtearen aurreko urte naturalean arau-hauslearen negozio kopuruaren gainean zehapen gisa jarri beharreko isun proportzionala kalkulatzeko hurrengo erregelak aplikatu behar dira:

Aitortu ez diren eragiketen zenbatekoak errekeritu diren eragiketen aldean suposatzen beharreko duen ehunekoa	Aplikatu beharreko zehapena
%10 baino gehiagotik %25era	%0,5
%25 baino gehiagotik %50era	%1
%50 baino gehiagotik %75era	%1,5
%75etik gora	%2

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren eragiketen zenbatekoa aitortu behar izan zirenen %10 edo gutxiago badira, edo aurreko idatz-zatian azaltzen diren erregelak aplikatzearen ondorioz 10.000 euro baino gutxiagoko zehapena jarri behar bada edo ezin bada zehapenaren zenbatekoa kalkulatu, 10.000 euroko isuna jarriko da zehapen gisa.

Aurreko idatz-zatian azaltzen diren erregelak aplikatzearen ondorioz 400.000 euro baino gehiagoko zehapena jarri behar bada, zehapen horren zenbatekoa aipatu kopururaino murriztuko da.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 209. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, arau-haustea egin zen urtearen aurreko urte naturalean arau-hauslearen negozio kopuruaren gainean zehapen gisa jarri beharreko isun proportzionala kalkulatzeko hurrengo erregelak aplikatu behar dira:

Aitortu ez diren eragiketen zenbatekoak errekeritu diren	Aplikatu eragiketen aldean suposatzen beharreko duen ehunekoa zehapena.
%10 baino gehiagotik %25era	%1
%25 baino gehiagotik %50era	%1,5
%50 baino gehiagotik %75era	%2
%75etik gora	%3

4. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren eragiketen zenbatekoa aitortu behar izan zirenen %10 edo gutxiago badira, edo aurreko idatz-zatian azaltzen diren erregelak aplikatzearen ondorioz 15.000 euro baino gutxiagoko zehapena jarri behar bada edo ezin bada zehapenaren zenbatekoa kalkulatu, 15.000 euroko isuna jarriko da zehapen gisa.

Aurreko idatz-zatian azaltzen diren erregelak aplikatzearen ondorioz 600.000 euro baino gehiagoko zehapena jarri behar bada, zehapen horren zenbatekoa aipatu kopururaino murriztuko da.

5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 209. artikuluko 3 eta 4 idatz-zatietako a), b) eta c) letretan ezarritako isunak ezin dira metatu. Horrenbestez, zehapen bakarra jarri behar izango da, errekerimendu bakoitza kontuan hartu ez den aldien arabera zehaztuko dena.

15. artikulua. Atxikipenen edo konturako sarreren ziurtagiria eman beharra ez betetzeagatiko zergen arloko arau-haustea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 212. artikuluan xedatutakoari dagokionez, arau-haustea egin dela ulertuko da atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten zergapekoek atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten errenten hartzaileei eurentzat egin behar duten ziurtagiria ematen ez badiete, atxikipenari eta konturako sarrerari dagokion zergaren aitorpenak edo autolikidazioak aurkezteko epeak igaro baino lehen, betiere zerga arautzen duten arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. TITULUA ZERGEN ARLOKO ZEHAPENAK EZARTZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA ARAU OROKORRA

16. artikulua. Prozedura bereizia.

1. Zergen arloko zehapenak ezartzeko, kasuan kasuko zerga aplikatzeko prozeduraz bestelako prozedura bat erabiliko da.
2. Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktetan ez da prozedura bereizirik izapidetuko foru arauaren 196. artikulutik 202. artikulura bitartean arautzen diren arau-hausteei dagozkien zehapenak ezartzeko; kasu horretan, formalizatzen den aktan eta aktak dakarren administrazio-egintzan sartuko dira arau-hauste horien gaineko eta jarri beharreko zehapenen gaineko inguruabarrak.
3. Egiatzapen laburtuko prozeduretan zergapekoak aukeratzen badu ordaintzeko konpromiso bat formalizatzea Zergei buruzko Foru Arauaren 158. quinquies artikuluko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera, zergak aplikatzeko prozeduratik bereizitako prozedura bat erabiliko da zehapen-prozedura izapidetzeko, eta, zergak aplikatzeko prozedura dela-eta emandako txostenean jasotako erregularizazioaren ondoriozko likidazioan prozeduraren edukia sartuko denez, egiatzapen laburtuko prozeduraren amaierak ekarriko du zehapen-prozedura ere amaitzea.
4. Gainerako kasuetan, zergapekoa berariaz horren aurka agertzen ez denean, batera izapidetu ahal izango dira zehapen-prozedura eta kasuan kasuko zerga aplikatzeko prozedura.

Halakoetan, une berean hasi ez badira ere, prozedura biak batera jakinarazi ahal izango dira, eta aldi berean formulatu bie dagozkien ebazpen-proposamenak.

Zergak aplikatzeko prozedurak eta zehapen-prozedurak administrazio-egintza independenteak izango dituzte, nahiz eta aldi berean jakinarazi ahal izango diren.

II. KAPITULUA IZAPIDETZA

17. artikulua. Zehapen-prozeduraren hasiera eta instrukzioa.

1. Prozedura ofizioz hasiko da, berorren instruktoreak organo eskudunak hartu duen erabakiaren jakinarazpena egiten duenean. Prozeduran ondokoak agertu behar dira gutxienez:
 - a) Ustez arau-haustearen erantzule den pertsonaren edo erakundearen identifikazioa.
 - b) Prozedura hastea eragin duen jokabidea, horren ustezko kalifikazioa eta ezar daitezkeen zehapenak.

- c) Prozedura ebazteko eskumena duen organoaren eta instruktorearen identifikazioa.
 - d) Prozeduran alegazioak azaldu eta entzunaldia izateko eskubidearen aipamena, eta eskubide hori noiz eta zein epetan erabili ahal den.
2. Eman den likidazio-proposamen bakoitzeko zehapen-prozedura bat hasiko da; halaber, prozeduran zehar zergen arloko arau-hausteren bat dakarren eta likidaziorik izango ez duen jokabideagatik ere beharrezko zehapen-prozedurak hasiko dira.

Dena den, arau-hauste bik zio edo inguruabar berberak dituztenean prozedura ezberdinen hasiera eta instrukzioa metatu ahal izango dira, baina horietariko bakoitzarentzat ebazpen bat eman beharko da.

3. Zehapen-espeditentea hastearekin batera organo eskudunak zehapena ezartzeko proposamenean beharrezkoak diren osagai guztiak baditu, proposamen hori prozedura hasteko erabakiari gehituko zaio. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio, espeditentea ikusgai dagoela adieraziko zaio eta hamabost eguneko epea ezarriko zaio egokitzat jotzen dituen alegazioak egin eta agiri, frogagiri eta frogak aurkezteko. Era berean, interesatuari berariaz ohartaraziko zaio alegaziorik jartzen ez badu eta agiri edo froga gisa erabiltzeko osagai berririk aurkezten ez badu proposamen horren araberako ebazpena eman ahal izango dela.

18. artikulua. Zehapen-prozeduraren ebazpena.

1. Prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak emateko organo eskudunak, prozeduraren instrukzioan egindako proposamena eta espeditentean biltzen diren agiri, froga eta alegazioak ikusi ostean ebazpena emango du, horretarako kontuan izan dituen zioak adieraziz. Hala ere, ebazpena eman baino lehen, jardun gehiago egiteko agindua eman dezake; horrela bada, jardun guztiak amaitu eta gero ebazpen proposamen berria eman behar izango da. Hain zuzen, ebazpen proposamen horri Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 217. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaio.

Ebazpenean espeditentean jasotzen diren egitateak baino ez dira kontuan hartuko, baldin eta prozeduran zehar zehaztu badira edo alde zuzenetik egiaztatu ondoren prozedurara ekarri badira.

2. Prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak emateko organo eskudunak hurrengo paragrafoan zehazten diren inguruabarretako bat gertatu delako ebazpen proposamena zuzentzen badu, interesatuari zuzenketa horren berri emango zaio. Honek, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu jakinarazpena egin eta bihamunetik zenbatzen hasiko den 10 eguneko epean. Aurreko paragrafoan aipatu inguruabarrak hauexek dira:
- a) Zehagarritzat jotzea zehapen-prozeduran zehatzeko modukoak ez diren jokabidetzat hartu direnak.
 - b) Jokabide zehagarriaren tipifikazioa aldatzea.
3. Interesdunei jakinaraziko zaie ebazpena. Gainera, hauek aipatu beharko dira jakinarazpen horretan:
- a) Erabili daitezkeen aurkarapen-bideak, haiek jartzeko epeak eta zein organori aurkeztu behar zaizkion.
 - b) Ezarri den zehapenaren zenbatekoa non, noiz eta nola ordaindu behar den.
 - c) Zehapenetan egindako txikipenen zenbatekoak eskatzeko bide ematen duten inguruabarrak.

- d) Berandutze-interesik eskatu beharrik eza baldin eta zehapenen kontrako errekurso bat edo administrazio-erreklamazio bat garaiz eta forma egokian jartzeagatik zehapenen betearazpena eteten bada.
 - e) Ebazpena administrazioarekiko auzien bidean aurkaratu badaiteke, jakinaraziko da etendura eskatuz gero organo judizialak eskabidearen gaineko erabakia eman arte mantenduko dela etendura.
4. Prozedurari buruzko ebazpen jakinarazteko gehieneko eperako ez dira kontuan hartuko justifikatuta dauden etenaldiak eta interesdunei egoztekoak diren luzapenak; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren Araudiaren 35. eta 36. artikuluetan ezarritakoaren arabera zehazten dira etenaldi eta luzapenok.

19. artikulua. Ikuskapen prozeduretako baten ondorioz hasitako zehapen-prozeduretan aplikatu beharreko erregelak bereziak.

- 1. Zehapen-prozedura hasteko, ikuskatzaileburuaren baimena behar da. Baimen hori ikuskapen prozeduran zehar, edozein unetan, edo prozedura amaitu ostean eman ahal izango da, baina betiere Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 216. artikuluko 2. zenbakian ezarritako gehieneko epea igaro baino lehen.
- 2. Formalizatu den ikuskapen-akta bakoitzeko edo likidazio-proposamen bakoitzeko zehapen-prozedura bat hasiko da; edonola ere, beste zehapen-prozedura batzuk has daitezke ikuskapen-prozeduran zehar tributu-arloko arau-haustea dakarten eta likidazioa egitea eragiten ez duten jokabideengatik.

Dena den, arau-hauste batzuen arrazoiak edo inguruabarrak berdinak badira, metatu ahal izango dira prozeduren hasiera eta instrukzioa, nahiz eta ebazpen bat eman beharko den arau-hauste bakoitzeko. Oro har, egiaztapen laburtuko prozedurak metatuko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako prozeduretan, behar bezala bereizita agertu behar dira prozedura horietan zehatutako arau-hausteak.

- 3. Ikuskatzaileburuak ikuskapen-prozeduraren jarduerak egiten ari den edo egin dituen aktuarioari nahiz beste aktuario bati agindu ahal izango dio prozeduraren instrukzioa, zerbitzuaren beharizanen edo kasuaren inguruabarren arabera.
- 4. Alegazioen izapideak egiten direnean, interesdunak berariaz adierazi ahal izango du zehapen-prozeduraren ebazpen-proposamenarekin ados dagoen ala ez. Hori dela bide, interesdunak bere iritzia espresuki ematen ez badu, ebazpen-proposamenarekin bat ez datorrela ulertuko da, Zergei buruzko Foru Arauaren 192. artikuluko 1. zenbakiko a) letran xedatutakoa gorabehera.

Edonola ere, egiaztapen laburtuko prozeduretan joko da interesduna proposamenarekin bat datorrela, salbu eta espresuki agerrarazten badu bere desadostasuna.

Adostasunak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 192. artikuluan ezarritako ondoreak izan ditzan, adostasunean bertan nahitaez jaso beharko da ikuskapen-prozeduraren ondoriozko erregularizazio-proposamena.

- 5. Prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzak emateko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua emango du; hala ere, aurretik agin dezake jarduketa gehiago egiteko, araudi honen 18. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoa aplikaturik.
- 6. Artikulu honetan xedatutakoari dagokionez, 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudiaren 2. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa hartuko da aintzat.

20. artikulua. Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktetan aplikatu beharreko erregela bereziak.

1. Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktei dagokienez, Araudi honetako 17. artikuluan ezartzen diren izapideak egiaztapen eta ikuskapen prozedura barruan egingo dira.
2. Araudi honetako 17. artikuluan jasotzen diren datuak, egiaztapen eta ikuskapen prozedura amaitu ondoren formalizatutako ikuskapen aktan sartuko dira.
3. Zehapen-prozeduraren eduki materiala ikuskapen-aktan jasotzen denez, egiaztapen- eta ikerketa-prozeduraren amaierak ekarriko du zehapen-prozedura ere amaitzea.

20. bis artikulua. Ordaintzeko konpromisodun adostasunaren egiaztapen laburtuetarako erregela bereziak.

1. Ordaintzeko konpromisodun adostasunaren egiaztapen laburtuen kasuan, kasuan kasuko zerga aplikatzeko prozeduratik berezitatiko espediente baten bidez egingo dira araudi honen 17. artikuluan ezarritako izapideak.
2. Zehapen-prozeduraren eduki materiala egiaztapen laburtuaren txostenaren ondoriozko likidazioaren administrazio-egintzan jasotzen denez, egiaztapen laburtuko prozeduraren amaierak ekarriko du zehapen-prozedura ere amaitzea.

III. KAPITULUA DIRUZKOAK EZ DIREN ZEHAPENEN EZARPENA

21. artikulua. Diruzkoak ez diren zergen arloko zehapenak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 190. artikuluko 1 eta 2 idatz-zatietan aipatzen diren diruzkoak ez diren zehapenetako bat izango da edozein zergari salbuespenak, txikipenak, kenkariak, hobariak edo erreguzko izaera duten beste zerga-onura nahiz zerga-pizgarri batzuk aplikatzeko eskubidea galtzea; hala ere, ondoko salbuespenak izango dira:
 - a) Ondasun edo zerbitzuen eskuratzailerai nahitaez jasanarazi behar zaizkien zeharkako zergetan xedatutakoak.
 - b) Barne antolamendua osatzen duten nazioarteko itunbeen edo hitzarmenen ondoriozkoak.
 - c) Nazioarteko elkarrekikotasun printzipioaren ezarpena dela bide emandakoak.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 190. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan ezarritakoari dagokionez, eta ezarri den isuna 30.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzea, erreguzko izaera duten zerga-onurak eta zerga-pizgarriak aplikatzeko eskubidea galtzea eta zehapena jarri duen Herri Administrazioarekin kontratuak egiteko debekua ezartzea dakarren diruzkoa ez bestelako zehapena aldi jakin baterako izango da; hain zuzen, hurrengo irizpideen arabera dagokion aldirako ezarriko da zehapen hori:
 - a) Urtebetarakoa, aipatu manuan jasotzen diren zehapena mailakatzeko irizpideak aplikatzean zehapenaren ehunekoa gutxienez 40 puntutan gehitu denean.
 - b) Hamazortzi hilabeterakoa, aipatu manuan jasotzen diren zehapena mailakatzeko irizpideak aplikatzean zehapenaren ehunekoa gutxienez 80 puntutan gehitu denean.
 - c) Bi urterakoa, aipatu manuan jasotzen diren zehapena mailakatzeko irizpideak aplikatzean zehapenaren ehunekoa gutxienez 120 puntutan gehitu denean.

22. artikulua. Diruzkoak ez diren zehapenak ezartzeko zehapen-prozedurak izapidetzeko espezialitateak.

1. Zergen arloko arau-hausteren bat egiteagatik diruzkoak ez diren zehapenak ezartzea ekar dezaketen egitateak edo inguruabarrak egiaztatzen direnean, zehapen-prozedura hasiko da. Hain zuzen ere, prozedura hori izapidetu eta ebazteko artikuluko honetan xedatutakoa beteko da eta, horrelakorik ezean, Titulu honetan xedatutakoa.

Diruzkoak ez diren zehapenak ezartzeko zehapen-prozeduraren izapidetzan ezin izango dira eztabaidatu diru-zehapena ezartzeko ebazpenaren elementuak.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoari dagokionez, diru-zehapena ezarri duen organoak idazki baten bidez zehapen-prozedura hastea proposatuko dio diruzkoa ez den zehapena ezartzeko organo eskudunari; horrekin batera, gainera, egindako dilijentziaren edo aktaren eta gainerako aurrekarien kopia bana bidaliko dizkio.

Kasu hauetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 216. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen den sei hilabeteko epea diru-zehapena ezartzeko administrazio egintza jakinarazten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

3. Diruzkoa ez den zehapena ezartzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari badagokio, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak izango du zehapen-prozedura hasteko eskumena.

Gainerako kasuetan, prozedura ebazteko eta bidezkoak diren diru-zehapenak ezartzeko eskumena duen organo berak izango du diruzkoak ez diren zehapenak ezartzeko zehapen-prozedura hasteko eskumena.

Nolanahi ere, diru-zehapena ezartzeko administrazio prozedura izapidetzeko organo eskudunak instruituko du prozedura.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 218. artikuluko 5. idatz-zatian aipatzen diren organoek emango dute ebazpena.

IV. KAPITULUA ZEHAPENEN BETEARAZPENA

23. artikulua. Zehapenen betearazpenaren etendura.

1. Garaiz eta forman administrazio errekurtsua edo erreklamazioa jarri bada, organo eskudunek automatikoki zehapenen (diruzkoen eta diruzkoak ez direnen) betearazpena eten egingo dute; interesatuak ez du etendura hori eskatu behar izango.
2. Zehapena administrazio-bidean irmoa denean, zerga-bilketako organoek ez dituzte premiamendu prozedurako jardunak hasiko harik eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epea amaitu arte.

Epe horretan interesatuak aipatu organoei jakinarazten badie errekurtsua jarri duela eta bertan betearazpena eteteko eskabidea egin duela, etendura hori mantendu egingo da harik eta organo judizialak eskatutako etendurari buruzko erabakia hartu arte.

3. Artikulu honetan xedatutakoa behar bezala aplikatzeko, errekurtsuak edo erreklamazioak izapidetzeko eskudun diren administrazio organoek 10 eguneko epean jakinaraziko dizkiete zehapenak betearazteko organo eskudunei kasu bakoitzari dagozkion erabakiak eta intzidentziak.
4. Zergen arloko zehapenek ez dute berandutza korriturik sortuko administrazio-bidea agortzen duen ebazpenak ordainketa borondatezko aldian egiteko emandako epea amaitu arte igarotzen den denboran zehar.

III. TITULUA

ZERGEN ARLOKO ZEHAPENAK BARKATZEKO PROZEDURA

24. artikulua. Zerga-zehapenen barkapena.

1. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari edo berak izendatzen duen organoari dagokio zergen arloko zehapen irmoak dohain barkatzeko eskumena; hain zuzen, ezarri den zehapen osoa edo horren zati bat barkatu ahal izango du.
2. Ezarri den zehapenaren betearazpenak modu larrian eragozten baditu industriaren nahiz ekonomiaren sektore baten ekoizpen-ahalmena eta enplegu-kopurua, edo herritar guztien interesei kalte handia egiten badie, barkamen-eskaera Ogasuneko zuzendari nagusiak edo honek izendatzen duen organoak egingo du.

25. artikulua. Eskabidearen betekizunak eta ondoreak.

1. Interesatuak hilabeteko epean eskatu beharko du zehapenen barkamena, zerga-zehapena ezarri duen egintza irmo bihurtzen denetik zenbatzen hasita. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko du, eskabidearen oinarri diren zioak edo egitateak adieraziz.

Alabaina, zehapena ezarri duen administrazio egintza irmo bihurtu baino lehen aurkezten bada eskabidea, horren izapidetza eten egingo da harik eta aipatu egintza irmo bihurtu arte. Izan ere, aipatu eskabideari dagokion epe barruan aurkeztu dela ulertuko da.

2. Eskabidea Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari bidali behar zaio; bertan datu hauek agertu behar dira, gutxienez:

- a) Eskatzailearen eta, behar denean, bere ordezkariaren izen-deiturak edo sozietate izena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta jakinarazpenaren ondoretarako tokia.
- b) Barkapena zein zerga-zehapenerako eskatzen den, berau irmoa dela adieraziz, eta eskaera zertan zehazten den: egitateak, zioak eta erreguak.

Zehapena ezarri duen administrazio egintza irmo bihurtu baino lehen aurkezten bada eskabidea, zergapekoak administrazio egintza horren aurka errekurtsorik edo erreklamaziorik ez duela aurkeztuko adierazi beharko da.

- c) Tokia, data eta eskatzailearen sinadura, edo ordezkariarena.
 - d) Araudi honetako 24. artikuluko 2. idatz-zatian azaldutako kasuetan, aurrekoez gainera, idatz-zati horretan ezartzen diren inguruabarrak frogatzeko memoria xehekatua ere aurkeztu beharko da.
3. Interesatuak barkapena eskatzen duen unetik ebazpena eman arte zehapenaren betearazpena automatikoki etenda geratuko da.

26. artikulua. Izapidetza eta ebazpena.

1. Zehapenak barkatzeko eskabideak izapidetzea, zehapenak ezartzeko eskumena duten organoen ardura da.

Hala ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 179. artikulua aipatzen dituen kasuetan, zerga-zehapenak horien gaineko eskumena duten arduradunei bideratu eta arduradunek zigor horiek barkatzeko eskabidea egiten dutenean, eskabide horiek izapidetzeko organo eskuduna Zergabilketako Zerbitzua izango da.

Araudi honetako 24. artikuluko 2. idatz-zatian azaltzen diren inguruabarren kasuan, prozedura izapidetzeko organo eskudunak Ogasuneko zuzendari nagusiari edo honek izendatzen duen organoari bidaliko dio espedienteak, bidezko txostena egin dezan.

2. Zerga zehapenak barkatzeko eskaera-espedienteak tramitatzeko prozedura gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi behar da, eskaera aurkezten den egunetik aurrera zenbatuta. Epe horretan prozedura ez ebazteak ez du esan nahi eskatu den barkamena ematen denik. Halere, zerga administrazioak ebazpena emateko betebeharra du, eta betiere beren beregi eman beharko du ebazpena.

Alabaina, zehapena ezarri duen administrazio egintza irmo bihurtu baino lehen aurkezten bada eskabidea, epe hori administrazio egintza irmo bihurtu eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

3. Zehapenak barkatzeko eskaera ukatzen bada, zehapena ezarri duen administrazio egintza irmo bihurtu denetik sortu ahal izan diren berandutza korrituak likidatu egingo dira, baita egon daitezkeen errekarquak ere.
4. Zerga-zehapenak barkatzeko prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri.

IV. TITULUA

HERRI OGASUNAREN AURKA DELITUREN BAT EGIN DELAKO ZANTZUA DUTEN ESPEDIENTEEN IZAPIDETZA

27. artikulua. Herri Ogasunaren aurkako delituren bat egin delako zantzua daudenean.

...

28. artikulua. Espedientearen izapidetzea.

...

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako arau berezia.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 170. artikuluko 2. zenbakiko 4. puntuan ezartzen den arau-haustea egin denean, ez da zehapenik ezarriko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 196., 198., 199., 200. edo 200 bis artikuluetan ezarritako arau-hausteak direla-eta, baldin eta arau-hauste horiek autolikidazioan kopuru jakin batzuk kontsignatu ez direlako sortu badira; kasu horretan, foru arau horretan ezarritako arau-hausteari dagokion zehapena jarriko da.

Bigarrena. Balio Erantsiaren Ikuskatzaile-buruari egindako aipamenak

Ikuskapeneko Zuzendariordezari dagokionez, araudi honen 19. artikuluan ikuskatzaile-buruari egiten zaizkion aipamenak ulertuko da berdin dagozkiola kasu bakoitzean tramitatu beharreko prozedura tramitatzeko ardura duen funtzionarioaren nagusi den zerbitzuburuari.

Hirugarrena. Ikuskatzaile-buru jakin batzuek tramitatutako prozedurak

Bat. Zehapen-prozedura baten instrukzioa Plangintza Zerbitzuko, Auditoria Informatikoaren Zerbitzuko edo Ikuskapen Jardueren Zerbitzuko buruek egiten badute, Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzuko buruari dagozkio araudi honek prozedura horietako bakoitza izapidetzeko ikuskatzaileburuari esleitzen dizkion eginkizunak.

Bi. Zehapen-prozedura baten instrukzioa Zergabilketa Ikuskatzeko Zerbitzuko buruak berak egiten badu, Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzuko buruari dagozkio araudi honek prozedura horietako bakoitza tramitatzeke ikuskatzaile-buruari esleitzen dizkion eginkizunak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Izapidetzeko prozedurak.

Araudi hau indarrean jarri baino lehen hasi diren zehapen-prozeduretan egun horren aurreko arautegia beteko da harik eta amaitu arte. Horrez gain, zergen arloko zehapen-araubidea ezarri duen martxoaren 2ko 18/1999 Foru Dekretuan kasu horietarako ezartzen diren arauak aplikatuko dira eta, hala denean, ekainaren 9ko 64/1987 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapenari buruzko Araudian xedatutakoa.

Bigarrena. Zergen arloko zehapen-araubide berriaren atzeraeraginezko aplikazioa.

1. Araudi hau, Bizkaiko Lurralde Historikoko martxoaren 10eko zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra indarrean jarri baino lehen egin diren zergen arloko arau-hausteei aplikatuko zaie, baldin eta arau-haustearen mesederako bada eta ezarritako zehapena irmoa ez bada; betiere aipatu Foru Arauko bosgarren xedapena iragankorrean xedatutakoaren arabera.
2. Araubide onuragarriena aplikatzeko asmoz, zehapenaren azken zenbatekoa hartuko da kontuan baina, hala badagokio, hurrengo txikipenetako bat aplikatu ostean: Bizkaiko Lurralde Historikoko martxoaren 10eko zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri egin beharreko txikipena edo foru arau orokor horretako 193. artikuluan ezartzen den ordaindu osteko txikipena. Txikipena aplikatzen bada, egin den arau-haustearen arabera aplikatuko da.

Ordaintzeko konpromisodun adostasun-aktei dagozkien zehapenetan, erkatze aldera, ulertuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorrean ezartzen den zehapen-araubidean adostasunaren ondoriozko txikipena aplikatu dela, eta erkatzea akta sinatu aurreko izapidetzan egingo da.

Hirugarrena. Zergen arloko arauak behin eta berriro haustearen ziozko mailakatze irizpidearen aplikazio iragankorra.

1. Zergen arloko arauak behin eta berriro haustearen ziozko mailakatze irizpideak aplikatzeari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorrean xedatutako zehapen-araubidea aplikatuta ezarri diren administrazio-bidean irmoak diren zehapenen kasuan, aurrekari bezala hartuko da arau-hausteari lehenago egindako arau-hauste berdintsu batengatik zehapena jarri izana.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 79. artikuluko a), b) eta c) letretan ezartzen diren arau-hausteak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 196, 197 eta 198. artikuluetan ezarritako arau-hausteak berdintsuak dira.

Ildo horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 78. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letrean ezarritako arau-haustea eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 204. artikuluan ezarritako arau-haustea berdintsuak dira.

Laugarrena. Zerga-zehapenak barkatzea.

Araudi honen III. tituluaren xedatutakoa bakar-bakarrik izango da aplikatzekoa 2017ko ekainaren 1a baino lehen ezarritako zerga-zehapenak barkatzeko eskabideetan.